

ALDIBEREKO ITZULPENAK TELEGRAM BIDEZ

Bileretan, aurkezpenetan eta halakoetan gero eta gehiago egiten dira aldibereko itzulpenak, hala ekitaldia euskaraz egiteko eta euskaraz ez dakitenek jarraitu ahal izateko. Aldibereko itzulpenak bi eredu nagusiren bidez egin izan dira urteetan: batetik, xuxurlariaren sistemarekin, non aholpeka itzultzen zaion euskaraz ez dakienari; bestetik, modu garatuagoan, itzulpen maletaren bidez, non mikrofono batekin egiten den itzulpena, eta behar dutenek aurikularrak erabiltzen dituzten. Udal batzuek badituzte itzulpen maleta horiek, eta utzi edo alokatu egiten dizkiete beharra daukatenei.

Aldibereko itzulpenak modu errazean egiteko aukerak gero eta gehiago dira, eta herri batzuetan Telegram aplikazioa probatu dugu jada. Praktikan, itzulpen maletaren estilora funtzionatzen du, baina abantaila batzuekin: nork bere telefonoa erabiltzen du, eta ez da, beraz, gailurik ibili behar eskutik eskura; erabiltzeko oso erraza da; jende kopuru handientzat ere balio du; eta dohainik da.

Dokumentu honetan jaso da nola erabili behar den Telegram itzulpenak egiteko IOS telefonoekin.

1. ZER ESKATU BEHAR DIEGU HARTZAILEEI (ITZULPENA BEHAR DUTENEI)?


Komenigarria da ekitaldiaren aurretik prest egotea itzulpena behar dutenak. Deialdian edo izena ematean eska diezaiekegu itzulpena jasotzeko prest etortzea. Honako hauek behar dituzte, beraz:

- Interneteko **konexioa** izatea telefonoan (edo ekitaldiko aretoan wifia erabilgarri egotea).
- Telegram **aplikazioa** instalatuta edukitzea. Doakoa da (euskaraz ere jar daiteke).
- **Aurikularrak** ekartzea (beren telefonoarekin bateragarriak diren aurikularrak).



2. NOLA PRESTATUKO DUGU TELEGRAM KANAL BAT?

Itzulpena Telegrameko kanal baten bidez egingo dugu; hortaz, kanal bat sortu behar da, eta horra batu behar dute itzulpena jaso nahi dutenek. Kanala prestatzeko, pauso hauek eman behar dira:

- a) **Kanala sortu.** Mezu berriak idazteko botoia sakatuko dugu (telefono batzuetan goialdean dago, eta besteetan, behean), eta hurrengo pantailan hautatu *Kanal berria*. Izena jarri beharko diogu kanalari (derrigor), eta aukera dago deskribapena sartzeko (ez derrigor). Kanal publikoa hautatuko dugu, eta URL bat sortu behar zaio, nahi dugun izenarekin (hauxe, adibidez: *t.me/bileratolosa*). Helbide hori erabiliko dute gero kanalera sartzeko.



- b) **Itzulpena behar dutenak kanalera sartu.** Bosgarren irudian jarri dugun URL helbidea zein den adieraziko diegu itzulpena nahi dutenei. Telefonoan, Interneteko arakatzailan sartuko dute helbide hori (Chrome, Mozilla, Safari... edo dena delakoan), eta helbidea sartzean Telegram irekiko zaie, sortu dugun kanalean. *Harpidetu* botoia sakatuta, barrura.
- c) **Itzulpenerako audioa jarri.** Itzulpena egingo den telefonotik aktibatu behar da audioa. Horretarako, pantailaren goialdean kanalaren izena ageri den lekuan sartu, eta hautatu *Live Stream* botoia, eta, ondoren, *Start Live Stream*. Emisioa martxan jarriko da horrekin. Deskuiduan telefonoko mikrofonoa isilduta badago, hortik bertatik jar daiteke martxan, *Gaitu mikroa* sakatuta. Aukera dago bideoa ere jartzeko, baina kasu honetan ez da behar.



d) **Emisioa amaitu.** Itzulpena amaitu denean, emanaldia itxiko dugu. Horretarako, emisioa martxan duen pantailan *Irten* botoia sakatu, eta baieztatu *Amaitu zuzeneko* botoiarekin.

